

## Berriago eta handiago



ANUNTXI ARANA  
ANTROPOLOGOA

**E**z da nobedadea, *Homo omen sapiens*-ak gero eta gehiago ustiatzen duen mundu hau gero eta txikiago zaigu. Lau egun jai eta Eskandinaviaraino!, zergarik gabeko kerosenoari esker. Bestela, toki jator exotikoak aukeratuko ditu euskaldun jatorrak bere oporretarako. Aldizkari honetan, martxoan, “turismoa *solidario*-jasangarria” aipatu zuen Pello Zubiriak, eta ametsa dela ulertu nuen, lau orriko hirusta. Esakune zelebre batez oroitzekoa: turismogintzaren funtsa dela beren etxean hobekiago leudeken jendeak eramatea haiek gabe hobeki egongo liratekeen lekuetara.

Klimaren bilakaeraz kezkatuak manifestatzen hasi diren gazte batzuek hegazkina ez dutela hartuko aldarrikatu dute. Baina bost axola agintariei gazteen solas lasaiak. Ez bakarrik goi agintariei: hemen, agorrilean Biarritzera ekarriko duten G7ari ongi etorri ematen dio Euskal Herriko Garapen Kontseiluak; bitartean, berdez garbitu eta *Klima foro* bat antolatu du.

Plastiko zaku batzuk kendu dizkigute, zerbait da. Aldiz, askoz gehiago dira onartzen dituzten debaldeko bilgarriak: libra erdi leka polistireno plateran; sarkapunta bat 10 cm blisterrean. Denda ekologiko batzuetan berdin, perfume-ria dirudite, apalak pote txikiz beteak,

bakoitzean 100 gr konpota, kartoi artistikoz berrestaliak. ATTAC elkarteak *dégage l'emballage* (utikan bilgarriak!) ekintzak antolatzen zituen antzina, erositako bilgarriak supermerkatuko atean lagatzeko; berrikitan Bizi!-k egin du. Eta urteak horrela, eta drama pertsonalak, kapsulez dabilen kafetera oparitzen dizutenean. Gero, barre ere egiten da, entzuten denean urliak, ura alferrik ez xahutzeko, zapitxo umelak erabiltzen dituela etxea txukuntzeko.

Aldizkariak, oso aspaldi ez da, paperezko faja minimalistan bilduta heldu ziren etxera onik eta osorik, denak plastikoan sartu arte. Azken erresistentek ere, *Herria* astekariak, amore eman zuen... Zorionez atzera egin du berrikitan! Kazeten itxuraldaketak barruan ere gertatu dira: argazkiak gero eta handiagoak, *couché* paperean ederrik inprimatuak. Hargatik, ez dute informazio gehiago ekartzen, jadanik saturatuak garenean irudi dotore deigarriez; gainera, holako dirdiran testuak irakurtzeko, hobe dugu eguzki betaurrekoak jantzirik. Eta beti paper gehiago eta ingurumen-inpaktu areago.

Nola atxiki korronteari kontra, atzean geratzeko irudipena izan gabe? Batek daki, *Berritu ala hil* baita konsigna, berdin zaharra baino txarragoa denean berria. ●

## Gure parpaila hautsiak



BEÑAT SARASOLA  
IDAZLEA

**P**osmodernitatearen seme-alabak omen gara, baina, halere, sarri izaten dugu iragana brotxa lodiz epaitu eta orainaldia ezin pasatako denbora baino moralki aurreratuagoa dela aldarrikatzeko tentazioa. Biolentzia matxista dela eta, esaterako, egungo estatistika eskandaluzkoak jartzen dizkigutelarik begien aurrean, berehala egin ohi dugu azpimarra: kontua da lehen ez zirela kontabilizatzen, besterik gabe onartzen zen biolentzia domestikoa zen.

XIX. mendeko idazle espainiar handienetakoa dugu Emilia Pardo Bazán, eta aski da bere kontakizunetako ugari irakurtzea ulertzeko biolentzia matxis-

ta ez dela izan atzo goizera arte denek txintik esan gabe onartua-pairatua-onetsia izan den zerbait. Pardo-Bazánek ez du bere ipuinetan salaketa esplizitirik egiten; aitzitik, bere poetika errealista-naturalistak eskatzen dionari jarraiki, garaiko gizartearen eguneroko biolentzia erretratatzeko du galbaherik gabe, gordintasun osoz. Eraitza, edozein salaketa baino indartsuagoa (eta eraginkorragoa, esango nuke) da. Inori interesatuko balio, berriki argitaratu du *Contraseña* argitaletxeak gaiaren buelta bere ipuinen antologia argigarri bat: *El encaje roto: antología de cuentos de violencia contra las mujeres*. ●